


# ikasleen txokoa

## LANGILE IKASTOLA



**Drogak, zer dira?/ //**



**Langileko ikasleak Paris eta Londrerantz / III**



**Pelikula Kritika / III**  
Gaitz

**Gutuna / IV**  
Miren Peñagarikano

**Liburu Kritika / IV**  
Nahiago nuke mutila banintz



**Egileak/ IV**



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## LANGILE IKASTOLA

# Drogak, zer dira?

### Zer dira?

Sentsazioa hautematea, jokabidea, motrizitatea, adimena... eraldatzeko, gorputzean sartzen diren substantzia kimikoak dira. Sortu ditzaketen ondorioak, faktore ezberdinengatik baldintzatzen dira.

### Nola sailkatzen dira?

Drogak sailkatzeko irizpide eta ikuspuntu asko erabili daitezke eta hau egiteko orduan hainbat aspektu hartzen dira kontuan; besteak beste, jatorria, nerbio sisteman eragiten dituzten efektuak, dependentzia, arrisku maila, legalitatea, onarpen soziala eta gizarte eredia.

### Nola hartzen ditugu?

Drogak bere eragina izan dezan lehenik eta behin organismoan sartu beharra dago eta bigarrenik, eragin-tokira iritsi beharra dauka. Barneratzeko modu ezberdinak daude:

- Aho bidea edo irenstea.
- Inhalatzea.
- Injektatzea.
- Bide topikoa
- Ondoesteko edo ipurtesteko bidea.

### Nolako kontsumitzaile motak daude?

Esperimentatzailea. Noiz behinkakoa. Instrumentala. Sarritakoa. Neurritz kanpoko.

### Zer da polikontsumoa?

Ezaugarri zeharo ezberdinak dituzten drogak aldi berean kontsumitzea da polikontsumoa. Hiru polikontsumo desberdin daude:



-Drogak ohituraz kontsumitzen dituztenen artean, droga bakarra hartzen dutenak ere egon daitezke, baina substantzia bat baino gehiago hartzen dutenak gehiago dira.

-Denbora tarte berean droga ezberdinak konbinatzen dira askotan. Alkohola edan, zigarro edo porroak erre eta kokaina marrak esnifatu daitezke, hau guztia asteburu berean.

-Epe hain motzean hainbeste droga nahasten ez dituzten ohiko kontsumitzaileak ere badaude. Adibidez, gau batean porro batzuk erre eta kalimotxoz mozortu, beste gau batean ordea, porroak kokainarengatik ordezkatzeko.

### Zein arrisku mota daude?

-Faltsutzea edo adulterazioak,



tolerantzia, nahasketa arriskuak, erresaka, legearekin arazoak, sobredosiak, deliriumak... eta dependentzia.

-Dosi handiagoak hartzea bultzatzen gaitu, edo substantzia bat maiz kontsumitzen denean, bere efektuak murrizten dira, hau da, gehiegi kontsumitzen bada tolerantzia sortu daiteke.

-Droga -dependentzia. Honek, egonezin larriak edo ez hain larriak sortu ditzake. Egon ezin zergati asko izan ditzazke, baina sintoma adierazgarriena, pertsonak eguneroko bizitza droga kontsumoaren inguruan mugatzea litzateke. Kontsumo mota hori, bat batekoa edo konpulsiboa izaten da, normalki substantzia baten inguruan ematen da, nahiz eta polikontsumitu daitekeen. Hala ere, honek ez du esan nahi egunero kontsumitu behar denik (heroinaren kasuan bezala), alkohola edo pilulak asteburuetan soilik kontsumituz ere engantxatuta egon zaitezke.

### Zein dependentzi mota daude?

Gorputzak normaltasunez funtzionatu ahal izateko drogaren beharra badu, jarraian azalduko dugun bezala, dependentzi egoe-

ra baten aurrean aurkitzen garelako esan nahi du.

Fisikoa: Organismoa substantzia baten etengabeko presentziara ohitu denean ematen da. Honen ondorioz, normaltasunez funtzionatzeko odolean, droga maila zehatz bat mantentzea premiazkoa du.

Psikologikoa: Noizbehinka droga modu konpulsiboan kontsumitzeko joera dagoenean.

Funtzionala edo instrumentala: Drogaren bat kontsumitu ezean hainbat gauza egiteko gauza ez garen.

### Zein efektu eduki ditzake cannabisak sexualitatean?

-Denboraren nozioa eraldatzen du.

-Sexu harremanak baloratzean distorsioak egon daitezke.

-Afrodisiako moduan erabili arren, kontrakoa sortzeko kapaza da, sexu desioa gutxitu dezakeelako.

-Gehiegi kontsumitzen bada, sexurako interes guztia galtzen da, logalea ere ekartzen du.

-Askotan jendeak, nahita, ez du sexurako harremanak eduki aurretik kontsumitzen, traba bat baita. ||



# Langileko ikasleak Paris eta Londrese- rantz

4.DBH-ko ikasleak ikasketa amaierako bidaia prestatzen ari dira dagoeneko.

Urtero bezala aurten ere, langile ikastolako 4.DBH-ko ikasleok, ikasbidaia antolatu dugu. Maiatzaren hasieran abiatuko gara 7 egunetarako, ondo pasaz, Europako zenbait toki ezagutzera.

Aurten, ondoren azalduko dugun aukeraketa sistemaren bitartez, Europa iparralderuntz joko dugu, alegia, Paris eta Londrese-  
rantz.

## Aukeraketa


Bidaia hau, sistema kolektibo baten bitartez aukeratu izan da. Bidaiara joateko asmoa genuen ikasleok, lau, bost kidez osaturiko talde ezberdinetan bildu ginen. Talde bakoitzak, Europako mugen barruan bisitatu nahi zuen herrialdeari buruzko lan-proposamena egin zuen. Egun bakoitzaren gutxi gora-beherako planifikazioa antolatu zuen. Bidaiak pertsonako 300 €ko aurrerakontua izan behar zuen, gehienez.

Hori egin eta gero, talde guztiak batzar batean bildu eta bakoitzak, eginiko lana azaldu zien gainontzekoei. Aukera guztiak ondo aztertu ondoren, bozketan anonimo baten bitartez, proposamen guztien artean, egingo dugun bidaia hautatu zen.

Beste proposamenen artean, lehia gehien eduki zuten bidaiak ondorengo hauek izan ziren; lehenengoa, Frantzia, Alemania eta Suiza igarotzea zen. Talde honen helburua, Paris, Munich eta Ginebra hiriburuak ezagutzera zen. Beste talde batek aldiz, Frantziako kosta ezagutu eta bertako kirolparkeetan joko ezberdinak praktikatzera zuen helburua.

## Diru kontuak

Bidaia hau egin ahal izateko, denen artean lan ezberdinak eginez, diru kopuru bat lortu dugu eta oraindik ere beste ekintza batzuen bidez beste hainbeste lortuko dugu. Hauen artean, jolas orduetan tortila pintxoak saltzen ari gara. Hala-



Irudian, aurtengo ikasbidaia egiteko atera duten logotipoa.

ber, abenduaren 24ean eskualde soinuaren laguntzaz, etxez etxe kantari atera ginen. Egun horretan bertan ere, txerrikume bat zozketatu genuen gudarien plazan.

Aurtengo Santa Ageda bezperan eta inauterietan, Plaza Berrin tortila pintxoak eta torrijak saldu genituen.

Gainera, kamixetak egiteko asmoa ere badugu. Maiatza bitartean postuak jarriko ditugu saltzeko.

Bestalde, martxoaren 18an, San Jose bezperan, arkume bat zozketatuko dugu. Zozketa honetan parte hartu nahi dutenak azal daitezela egun horretan plazan, bertan errifak salduko baititugu. Hala ere, aste horretan bertan kaxkoan kartelak jarriko ditugu dena zehaztuz.

## Bidaia

Maiatzaren 7an, ilunabarrean Atsegindegin autobusa hartuko dugu Pariserantz abiatzeko. Bertan hiru egun pasako ditugu eta beste hainbeste Londresen.

Parisen igaroko ditugun hiru egun horietan hainbat gauza berri ezagutzeko aukera izango dugu, hala nola, hiriko alderdi ezagunenak, Eiffel dorrea, Notre Dame, hainbat museo, Sena ibaia, Sant Sulpice eliza... Halaber, turkiar bainu zorgarrietaz gozatzeko aukera izango dugu, bai eta hiriko auzo ezberdinak ezagutzeko ere.


Londresen, berriz, hiriko txoko berezi eta xelebreak ikusiko ditugu, horien artean Big Ben erlojua, Buckingham Palace, Westminster

Abbey, hainbat museo, plaza ikusgarriak...

Planifikazio hau ez da behin betikoa izango. Hila-beteotan zehar, ikasgai ezberdinetan landutako gaiak bidaian aplikatzeko aukera izango dugu. Esaterako, Gaztelanian, bi liburu irakurri ditugu: "El código Da Vinci" eta "Juntos nada más". Bi nobela horien haria Paris eta Londreseko auzo eta kale xelebreetan zehar kokatzen da.

Azkenik, zera esan behar dugu; bidaia egin ahal izateko bildu dugun dirua ikasleok egin dugun lanengatik lortu dugunez, satisfazio berezia sentitzen dugula. Denok dakigun bezala, ereindako uzta goxoagoa suertatzen zaio langileari oparitutakoa baino. ■

## ❖ PELIKULA KRITIKA



## 'Gaitz'

ZUZENDARIA:  
Mikael Håfström

2003an Suedian egindako pelikula da, Mikael Håfström zuzendaria egindakoa. Protagonista nagusia, Andreas Wilson da. Filmak 107 minutu irauten ditu eta Oskarrera nominatua egon zen pelikula ez-ingles onena bezela.

Erik Ponti da protagonista, eta eskolatik bota egiten dute beste ikasleak jotzeagatik. Bere amak barnetegi batera bidaltzen du institutura joan dadin eta Erikek promesa bat egiten dio: ez dela arazoetan sartuko eta institutura iritsiko dela esanez. Stjansberg-en lagun bat egiten du, Pierre, eta bere laguntzaz arazoak saihesten saiatzen da, baina ezinezkoa egiten zaio, bere izaerarengatik.

Pierre eta Marjaren (bere neska-lagunaren) laguntzaz, batxileratoko ikaslearen injustiziak gainditu egiten ditu. Pierrek alde egiten du eta Marja bota egiten dute, orduan Erik borrokatu egiten da batxileratoko ikasle batzuekin. Erikek Marjaren gutun bat jasotzen du, ume bat izango duela esanez. Horregatik barnetegitik bota egiten dute. Erikek ez du onartzen eta abokatu baten laguntzaz bertan geratzen da eta kurtsoa aprobaten du.

## Iritzia

Oso pelikula ona da, oso ondo adierazten dituelako injustiziak jasaten dituenaren sentimenduak, gainera oso inpaktu gogorra egiten dizu barnetegiko egoera ikusteak. ■

17

zenbakia

# ikasleen txokoa

## GUTUNA :

2005eko azaroaren 14a

Agur:

Ez dira malco gehiago isuriko nire begiradan, inoiz aurkituko ez nauzun leku batera joan bainaiz jada. Ez duzu inoiz jakingo nora joan nintzen, ez nauzu sekula topatuko, aspaldi da galdu ninduzula. Behin soilik zeurea izan nintzen, non laztanek bakardade eta isilpeko topaketak utzitako hutsunea bete zuten; baina ez naiz inoiz sekula gehiago zeurea izango. Akatsetatik ikasten dugula esaten dugu, baina zeinek esango zidan niri maitatzea bekatu bihurtuko zenik? Baztertuz hasiz zinen, ondoren beste batzuekin joanez. Sexua alde batean utzi eta zure aho zein ukabilekin oinazeak sortuz jarraitu zenuen. Lasai egon beraz nitatik, ez bai gara gehiagora iritsiko. Zugandik urrun, ezerk helduko ez nauen leku batean, emakume askea izango naiz, goitik beherako arima askea. Zikina egin zidan eta zikin sentiarazten nauzu, urruntasunak ordea, puru bilakatuko nau. Inoiz ez

bezala hegan egingo dut, begiak itxi ireki baten bezala ihesian joanez. Lurrean eskubiderik gabe zabilTZan gizona zara, inoiz edozein emakumek ez dizu eskubiderik luzatuko bera jipoitzeko, hori da hain ez gizaki egiten zaituena. Emakume guztiaren aurrean diskriminatuko zaitut gaxo zorigaitz moduan, kolpeitsuak emanez, oraindik ez dituela ikasi bizi eta zibilizazioaren arauak. Mundu honen salbuespena zara, bizi beharrean hil egiten duzula. Zure esku zikinak, odolatan bustirik beti edukiko dituzu, gehiago esango dizut, apurraz damutu arren ezin izango dituzu sekula garbitu eta emango dituzun pauso bakoitzean inuzente bakoitzaren pisua agertuko zaizu. Begira zaitetz eta ulertu zertan bihurtu zaren. Bihotz gabe, atzaparrekin gizona deitu arazten zara. Nire arazoa ez da izan-

Miren Peñagarikano - Gutunaren egilea



**Zergatik idatzi zenuen eskutitz hau?**

Tratu txarrei buruzko lehiaketa baten berri eman ziguten ikastolan eta parte hartzea erabaki nuen.

**Norbaitek lagundu al zizun?**

Ez, nik bakarrik idatzi nuen

**Asko kostatu al zitzaizun?**

Ez, nahiko errez idatzi nuen, gogoko baitut.

**Bukatutakoan zer egin zenuen eskutitzarekin?**

Aurrena lagunei erakutsi nien, ondoren irakasleari eta azkenik etxekoei.

**Zure lagunek zer esan zizuten eskutitza irakurrita?**

Batzuk irakurri eta polita zela edo gustatu zitzaieela esan zidaten, beste batzuk ordea, ez ziren irakurtzera iritsi, luzeegia iruditzen zitzaielako.

go zu topatzea, arazoa zu ahaztea izango da; nire bihotza arantza eta heso- lez josirik utzi didaten tratu txarrek sortu didaten mina ahaztea. Urteak joan hala ikusten ez diren orbainak, baina bizitzan zehar sentitzen direnak bilakatu zaizkit. Hainbeste zauri sortu dituzu bizi eta patuetan, egingo duzun on guztiak ez duela sortzen duzun txar guztia ezabatuko. Zure bortizkeri eta hipokresiazko kaiolan preso inuzente izan nintzen, baina jada ez dizut beldurrik ez zure keinu, ez zure garrasiengatik. Nire heriotzaren ohitura amaitu da eta bakarrik geratu zara, bakarrik, inor menperatu ezinik. Maite izan nizun, maitatu izango nizuke, baina lehen kolpeak mugatu zuten guztiaren patua. Nitaz oroitu zaitetz, baina ez joan nintzelako edo zorigaitz egin zenidala-ko, baizik eta irabazi egin zintudalako, inor inoiz ez bezala gainditu zaitu-

dalako eta zorigaitzoena zu zeu zarela ohartzen zarenean, beranduegi izango da erruki, barkamen eta min gehiago eskatzea, zeure arima lasaitzeko, bizkarrean eramango duzun pisu guztia jasan ahal izateko. Puntu batera iritsiko zara non bizitza hau atzean uztea erabakiko duzun, baina zure gizon harrotasunagatik, zutik jarraituko duzu gehiago ezin ahal izango duzun arte, geratuko zaizun bakarra, zure guda propiotik erretiratzea besterik izango den. Gureak ez zuen etorkizunik, zuk zure antzerkiarekin jarraitu, baina ez zaitetz zaude- na baina gehiago okertu. Bizitza bakoitza munduak deitu arazten dira, baina zurea ez da mundua ezta izango ere, ez bizi ez mundu ez zenuke eduki beharko. Zerura begiratzen duzun bakoitzean, gogoratu zaitetz aingeru honetan, gorrotoa ere gorde nahi ez dizula, begiak irekiko dizkizula eta zurekin egon ez arren aldatuko zaituela. Urrun, goitik sakoneraino agurtzen naiz.

"Zoriontsu izan".

## Alearen egileak:



**Goian:** Aitziber Santin, Ane Ibarburu, Miren Peñagarikano, Oihane Erize, Iñaki Otxotorena, Aritz Arrieta, Ander Lopez.

**Behean:** Izaro Auzmendi, Ane Etxaniz, Oihana Nieto, Laida Rekalde, Edurne Elizalde, Lierni Mateos, Miren Altuna.

## LIBURU KRITIKA

### Nahiago nuke mutila banintz



Liburu hau David Duran izeneko mutil gazte batek idatzia da. 1999ko apirilean egin zen lehenengo argitarapena. Liburu honek Eusko Jaurlaritzako kultura sailean laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Gerardo Marduletak egina da, eta marrazkiak berriz Asun Baltzolak.

#### Kritika:

Liburu honetan sexualitateari buruzko informazio argi eta zuzen ugari ematen die mutil eta neskei.

Sexuari buruzko azalpenak emateko bide originala da. Nobela sinplea den arren, bere betebeharrak egoki azaltzen du. Istori atsegina eta erraz irakurtzekoa da.

Aldatzekotan fantasia kentzea litzateke urte aurrekoentzat fantasia ez da oso gustokoa liburu batean. Datoak eguneratu beharra dago eta nesken sexuari buruz (hilekoari buruz adibidez) informazio gehiago eman beharko litzateke, semenari buruz informazio gutxiago. Okerrena datu zientifiko gehiegi ematen dituela da eta ez dela oso ondo ulertzen. ■